



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko azaroaren 18a

126. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bilera egiteko deia egin diezaion Ekonomia Ministerioari, Ecoenergía Navarra enpresaren zorraren ordainketen luzapena negoziatzeko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dekretuak gara ditzan, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazio-eremuarekin zerikusia dutenak. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har ditzan Asiako liztorrari aurre egite aldera toki entitateek eginiko gastuak, eta horretarako kontusail bat gaitu dezan 2015erako Nafarroako aurrekontu orokorretan. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da agiri ofizial bat eman dezan, zeinean adieraziko baita 100 kW baino gutxiagoko eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizleek ez dutela zergarik ordaindu behar, harik eta Estatuarekin hitzartu arte. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (4. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bilera egiteko deia egin diezaion Ekonomia Ministerioari, Ecoenergía Navarra enpresaren zorraren ordainketen luzapena negoziatzeko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bilera egiteko deia egin diezaion Ekonomia Ministerioari, Ecoenergía Navarra enpresaren zorraren ordainketen luzapena negoziatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

2014ko azaroaren 13an egindako lan bileran, Artaxoako Ecoenergía Navarra enpresako langileek adierazi zuten, alkatearekin eta herriko nekazarien ordezkarekin batera, proiektua ekonomikoki bideragarria eta ikuspuntu sozial batetik beharrezkoa dela.

Egia da minden kudeaketa egokia arazo bihurtzen ari dela, ez soilik Nafarroako Foru Komunitatean eta abeltzaintzak pisu handia daukan eskual-

deetan, ezpada antzeko inguruabarrak bizi dituzten beste autonomia erkidego askotan ere.

Hori dela-eta, gure ustez garrantzitsua da arazo honi ikuspuntu global batetik ekitea eta konponbide globalak bilatzea; besteak beste, legerregulazio egoki baten bidez, erreparatuz energia-sorkuntzaren alderdiei ez ezik, alderdi sozialei eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotutakoei ere, Artaxoan instalatutako kogenerazioko plantan gisakoei dagokien moduan.

Ecoenergía Navarra enpresaren kasuan, energia-kogenerazioko planta bati buruz ari gara; alegia, berezkoak ditu industria-, energia-, abeltzaintza- nahiz nekazaritza-alderdiak, eta, hortaz, hori guztia eta ez soilik alderdi horietako bat aintzat hartuta aztertu beharra dago, horiek guztiek batera –ezen ez bakoitzak bere aldetik– ematen baitiote proiektuari gailentasuna.

Tamalez, berriro ere maniobrarako tarterik gabe gaude denboraren aldetik, eta ukitutako administrazioei jarduketa urgenteak abiarazteko eskatu beharrean gaude, konponbide bat lortzeko eta konponbide hori ez dadin soilik izan besoak gurutzatuta onartzea plantaren itxiera. Albait azkarren igaro behar dugu hitzetatik ekintzetara.

Horrenbestez, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak eztabaidatzeko eta bozkatzeko proposamen hau aurkezten du, zeinean, alde batetik, Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehalakoan bilera egin dezan Ekonomia Ministerioarekin, negoziatze aldera enpresak zer baldintzatan itzuli ahal eta behar dituen hartutako zorrak; izan ere, erregulazio-aldaketa egin aurreko uneetako inbertsioen ondorio dira zor horietako asko. Proposamenean orobat eskatzen da Industria Ministerioarekin konponbide bat negoziatzea, hark sustatutako erreforma energetikoaren ondorengo erregulazio aldaketaren ondorio nagusi gisa tan-

kerak honetako plantek bizi duten egoerarentzat. Orobat eskatzen da Nafarroak fronte komun bat egin dezan, ukitutako gainontzeko erkidegoekin batera, konponbideak exijitzeko, ez soilik energiaren auzirako, ezpada, hasieran esan dugun legez, minden isurketaren auzirako ere. Azkenik, beharrezkoa ikusten dugu Sodena konponbidean parte hartzera sar dadin, Artaxoako planta erosteko interesaturik dauden enpresekin negoziazioak abiaraziz.

Hartara, Socialistas de Navarra parlamentutaldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako erabaki proposamen hau aurkezten dio Nafarroako Parlamentuko Industria eta Enplegu Batzordeari:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ekonomia Ministerioarekiko bilera baterako deia egin dezan lehenbailehen, Ecoenergía Navarra enpresaren zorraren ordaintzen luzapena negoziatze aldera eta hark bere enpresa-jarduerarekin jarraitzeko modua izateko baldintzak errazte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Industria Ministerioarekiko bilera baterako deia egin dezan urgentziaz, Foru

Komunitateko zenbait tokitan minden kudeaketa dela-eta gertatzen ari den arazoari konponbide bat emate aldera, zeina nahitaez etorriko baita berriazko tratamendu bat ematetik kogenerazio planta horiei, lege-erregulazio egoki eta ez-kaltegarri baten bidez jarduten jarraitu ahal izan dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du fronte komun bat planteatzen dezan, ukitutako gainontzeko erkidegoekin batera, egungo araudia aldatzeko premiari dagokionez indarra eginen duena; izan ere, araudi horrek eragin oso negatiboa dauka gisa honetako enpresakimenen kasuan nahiz horrelako instalazioei esker industria-, nekazaritza- nahiz abeltzaintzagarapeneko aukera handiak izan ditzaketen eskualdeen kasuan; hain zuzen, bestela balitz sekula ere abiaraziko ez lirakeen aukerak.

4. Azkenik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sodenaren eskutik erabakitasunez bila ditzan konponbideak planta erosteko interesa erakutsi duten enpresekin, bere garaian hasierako proiektuak argia ikus zezan egin zuten modu berean.

Iruñean, azaroaren 13an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dekretuak gara ditzan, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazio-eremuarekin zerikusia dutenak.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko azaroaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dekretuak gara ditzan, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazio-eremuarekin zerikusia dutenak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazio-eremuarekin zerikusia duten dekretuak gara ditzan".

Iruñean, 2014ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har ditzan Asiako liztarrari aurre egite aldera toki entitateek eginiko gastuak, eta horretarako kontusail bat gaitu dezan 2015erako Nafarroako aurrekontu orokorretan.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2014ko azaroaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har ditzan Asiako liztarrari aurre egite aldera toki entitateek eginiko gastuak, eta horretarako kontusail bat gaitu dezan 2015erako Nafarroako aurrekontu orokorretan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtea bukatu aitzin beha-

rrezkoak diren tresnak abiaraz ditzan, halako moduan non, behar bezala justifikatutako fakturen aurkezpena tarteko, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak bere gain hartuko baititu Asiako liztarrari aurre egite aldera toki entitateek eginiko gastuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontusail bat ezar dezan 2015erako Nafarroako aurrekontu orokorretan, deialdi bat egite aldera, Nafarroako toki entitateei zuzendutakoa, Asiako liztarrari aurre egiteko."

Iruñean, 2014ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da agiri ofizial bat eman dezan, zeinean adieraziko baita 100 kW baino gutxiagoko eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizleek ez dutela zergarik ordaindu behar, harik eta Estatuarekin hitzartu arte.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2014ko azaroaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da agiri ofizial bat eman dezan, zeinean adieraziko baita 100 kW baino gutxiagoko eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizleek ez dutela zergarik ordaindu behar, harik eta Estatuarekin hitzartu arte"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ziurtasun juridikoa bermatzearen, agiri ofizial bat eman dezan, zeinean interesdun guztiei adieraziko baitaie 100kW baino gutxiagoko eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizleek ez dituztela ordaindu behar 2013 eta 2014rako energia elektrikoa ekoiztearen balioaren gaineko zerga dela-eta Zerga Agentziak erreklamatzeko dizkien kopuruak, harik eta Estatuarekin hitzartu arte".

Iruñean, 2014ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera